

## 2006-01-24ko EZOHIZKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta sei urteko urtarrilaren hogeita lauan, arratsaldeko 20:00etan, udaletxeko Udalbatza Aretoan, ezohiko batzarra egin zuen Udalbatzak, Marimi Ugalde Zabala alkatea buru zuela.

Agustin Zubeldia Iraola, M. Jesus Otaño Zumeta, Aitor Lasa Olalde, Eugenio Loidi Garmendia, Jose Luis Olano Zubeldia eta Gregorio Lasa Etxezarreta zinegotziak izan ziren bileran.

Udaleko idazkariak –Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak– egin zituen idazkari-lanak.

Alkateak bilkura publikoa ireki zuen; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi zuen bilera egitea bazegoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baitzen.

### LEHENDABIZIKO GAIA

#### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, IRURAKO HIRIGINTZAKO UDAL-PLANGINTZAREN ARAU SUBSIDIARIOEN BERRAZTERTZE-AURRERAKINA.**

Alkatetzak honako AKORDIO PROPOSAMENA aurkeztu du:

“Irurako Udala udal-plangintza urbanistikoko Arau Subsidiarioen berrikuste-espedientea tramitatzen hasi da.

Udal honetako Alkatetzaren 2005eko abuztuaren 8ko 89. zenbakia duen erabakiaren bidez, dokumentuan adierazitako modifikazioaren irizpide, helburu eta irtenbide orokorrak biltzen dituzten lanak jendaurreko informaziorako jartzea erabaki zen.

Hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2005eko irailaren 1ean, El Diario Vasco-n eta beste egunkarietan argitaratu ziren.

Informazio publikoko epeak hilabete bat baino pixka bat gehiago iraun du, eta denbora honetan, hamalau alegazio aurkeztu dituzte. Hauexek dira:

- 1.- Lourdes Labaca Zabalarena, landa-lurretarako sarbideei buruz.
- 2.- Lourdes Labaca Zabalarena, Goiko-Etxe etxearen egoerari buruz.
- 3.- Jokin Diaz Arsuagarena, 16. zonalde berriari buruz (Katategi).
- 4.- Lourdes Labaca Zabalarena, Talleres Guibe S.A.-ren eraikuntzari buruz.
- 5.- Alfonso Mendia Saavedra eta beste batzuen, hainbat zonalderi buruz: Antonenea, Larriturri eta Lizarretako-Balda partzela.
- 6.- Miguel Angel Alonso Oyarbiderena, Katategi zonalde berriari buruz.
- 7.- Daniel Garmendia Palaciosena, Katategi zonalde berriari buruz.
- 8.- Ignacio Arrese Goiburu eta beste batzuen, Ibaiondo 2n, autobidearen eta Oria ibaiaren artean dagoen lursailari buruz.
- 9.- Asunción Arruabarrena Gonzalez eta beste batzuen, 9. zonalde berriari buruz (Zabalgune).
- 10.- Luciano Lasa Balerdirena, 14. zonaldeari buruz (Laskibar).
- 11.- Luciano Lasa Balerdirena, lurzoru urbanizaezinetako lursailei buruz, Laskibar izeneko 14. zonaldean.
- 12.- Irurako Urdaitegia S.L.-rena, 7. zonalde berriari buruz (Antonenea).
- 13.- Jose Antonio Gurruchaga Arambururena, 3. zonalde berriari buruz

(Izaskun Manufakturak).

14.- Juan Jose Arregui Etxaberena, 16. zonaldeari buruz (Katategi).

Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumenaren organoari eskatu zitzaion ingurumeneko eragina neurtzeko aurretiko estudioaren txostena bidaltzeko, baina oraindik ez dute txosten hori bidali. Beraz, espedientearekin jarrai dezakegu, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak ingurumeneko eraginaren ebaluaketa bateratuaren prozedurari buruz ezartzen duenaren arabera.

Berrikuspena idatzi duen Iñaki Etxeberria arkitektoaren txostena ikusi dut, aurkeztu dituzten alegazioei buruzkoa.

Idazkari-kontuhartzailearen txostena ikusi dut.

Ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretuak onartutako Plangintza Urbanistikoaren araudiko 125.3 artikuluan ezarritakoaren arabera,

Ondorengo erabakia hartzea proposatzen dut:

Lehena.- Erabakitzea, jendaurreko informaziorako jarriko den dokumentuan azaltzen direnak, irizpide eta irtenbide orokorrak izatea (plana horien arabera landuko da), aldaketa hauek eginda:

a) Miguel Angel Alonso eta Daniel Garmendiaren lursailek oraingo sailkapena mantentzeko, hau da, hiri-lurzoru industrialarena; beraz, Katategi 16. zonalde berritik bananduko lirarteke.

b) Ignacio Arrese Goibururen Ibaiondo 2ko lursailean aprobetxamendu urbanistikoa egiteko aukera aztertzea.

c) Antonenea izeneko 7. zonaldean aprobetxamendua areagotzeko aukera aztertzea.

d) Izaskun Manufakturak izeneko 3. zonaldean 1,1 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup>-ko aprobetxamendua onartzea.

e) Larriturri izeneko 10. zonaldea zabaltzeko aukera baztertzea (proposamena aurrerakinean dator) eta gaur egungo Arauek mugatzen duten bezala uztea.

f) Baztertzea Zelai zonaldeko pabiloi industrialaren erabilera aldatzeko aukera (erabilera industrialetik egoitza-gunekora), eta gaur egun duen erabilera industrialarekin geratzea.

Bigarrena.- Nolanahi ere, arkitektoaren txostena bidaltzea alegazioa aurkeztu duten guztiei.

Hirugarrena.- Aurrerakin gisakoak ez diren alegazioak aztertuko dira behin-behineko onarpeneko dokumentua idazteari begira.

Erabaki hau tramite hutsa da eta beraren aurka ezin da errekurtsorik jarri.”

Beraz, Udalbatzak aho batez erabaki du onartzea.

## **BIGARREN GAIA**

### **BEHIN BETIKO ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, IRURAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 16 ZONALDEAREN URBANIZAZIO PROIEKTUA.**

2005eko azaroaren 10eko 138 Alkate-dekretuaren bidez erabaki zen Irurako hirigintzako udal-plangintzaren Arau Subsidiarioetako 16. zonaldearen urbanizazio proiektua onartzea. Proiektua Mercado y Desarrollo de Terrenos S. L.-k sustatu du eta Karmina Peñalbak idatzi du. Era berean, erabaki zen jendaurreko informaziorako jartzea 15 lanegunetan zehar. Epe hori amaitu ondoren, inork ez du inolako alegazio edo erreklamaziorik jarri.

Udal arkitekto teknikoaren eta idazkari-kontuhartzailearen txostenak ikusi ondoren, Udaltzako ondorengo erabaki du aho batez:

Lehen.- Irurako Arau Subsidiarioetako 16. zonaldearen urbanizazio proiektua behin betiko onartzea, betiere udal arkitekto teknikoaren 2006-01-12ko txostenean adierazten diren baldintzetan. Txosten hau akordioaren parte izango da eta bere jakinarazpenarekin batera bidaliko du udalak.

Bigarrena.- Obra amaitu ondoren, goian aipatutako txostenean zehaztuta ageri den dokumentazioa aurkeztu beharko da. Jarraian, baldintzak betetzen baditu, behin-behineko onarpena emango zaio obrari. Urtebeteko bermealdia igaro ondoren, behin betiko onartuko da.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinarazi eta hilebeteko epean, 4.500 €-ko (proiektuaren %6) fidantza sartu beharko da udaletxe honetan, kontratu publikoen araudian zehazten den moduren batean, eta urbanizazioa ongi gauzatzen dela ziurtatzeko. Fidantza itzuli egingo da, hala badagokio, behin betiko onartzearekin batera.

Laugarrena.- Behin betiko onarpenaren akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da eta akordioak eragiten dien jabeen pertsonalki jakinarazi beharko zaie.

#### **HIRUGARREN GAIA**

#### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ETXEETAKO ZABORRAK BILTZEKO KONTRATUA CESPAS.A. ENPRESAREN ALDE.**

1998ko martxoaren 25ean Juan Galarraga Huegunekin hitzarmena sinatu zen, etxeetako zaborrak biltzeko zerbitzua eman zezan. Zerbitzua, 1998ko martxoaren 1etik hasita, 2 urtetan zehar eman beharko zuen eta beste bi urtez luzatzeko aukera ere bazegoen.

Ondoren, hainbat aldaketa egin zaizkio kontratuari, prezioak berrikustea barne, ohiko zaborregia lekuz aldatzeagatik. Hauek dira azken bi aldaketak:

-2005eko otsailaren 1koa, kontratua 2006ko martxoaren 1a arte luzatzen duena, edo martxan jarri arte udal hau parte den Eskualdeko Mankomunitatearen zabor-bilketaren eskualdeko zerbitzua.

-2005eko uztailaren 26koa, soldatak berraztertzean jarritako prezio berria zehazten duena. 2005erako prezio berria, hilean 2.255,23 €-koa da, BEZ barne.

2005-11-08 datarekin sarrera eman zitzaion Juan Galarraga Huegunek eta CESPAS.A. enpresak sinatutako idatziari, eta bertan eskatzen dute aipatutako kontratua CESPAS.A.-ri lagatzea.

Idazkari-kontuhartzailearen txotena ikusita.

Udaltzako haxe erabaki du aho batez, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bategineko 114. artikuluan ezarritakoaren arabera, ekainaren 16ko 2/2000 Errege Lege Dekretuaren bidez onartzen dena:

Lehen.- Baimentzea Irurako etxeetako zaborrak biltzeko kontratua lagatzea CESPAS.A.-ren alde, baldintza hauetan:

a) Kontratuti eratorritako eskubide eta betebeharrak guztien subrogazioa.

b) Era guztietara, kontratua 2006ko martxoaren 1a arte luzatuko da, edo Tolosaldeko Eskualdeko Mankomunitateak zabor-bilketaren zerbitzua bere gain hartu arte, data hori baino lehen gertatuz gero.

c) Kontratuaren prezioa handitu denez, fidantza-kopuru berri bat zehaztu behar da, 3.000 €-koa. Fidantza udalaren kutxan ordainduko da, erabaki hau jakinarazi eta 15 eguneko epean gehienez ere, eta indarrean dagoen araudian zehazten den moduren batean.

d) Kontratatik dagokion kontratua sinatu beharko du administrazio-agirian, erabaki honen berri jaso eta 15 eguneko epean gehienez ere.

Bigarrena.- Juan Galarraga Hueguni fidantza itzultzeko espedientea hastea.

Hirugarrena.- Alkatetza ahalmentzea kontratua sinatzeko udalaren izenean eta bere ordezkari gisa.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

#### **LAUGARREN GAIA**

#### **IVAP ETA HERRI ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HITZARMENAREN EREDU BERRIA HIZKUNTZA-PRESTAKUNTZA ETA NORMALIZAZIOAREN ARLOAN ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Lankidetzeta-hitzarmen honen helburua Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Irurako Udalak beren artean izango duten harreman juridikoa finkatzea da, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Aginduan ezarritakoari dagokionez. Agindu horren bidez, batetik, arautzen da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak Eusko Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua, eta bestetik, ezartzen dira euskara-ikastaroetara doazen udal-langileak ordezkatzeko dirulaguntzen arauak.

Horren aurrean udalbatzak ondorengoa erabaki du aho batez:

Lehena.- Aipatutako hitzarmena sinatzea HAEE-rekin.

Bigarrena.- Marimi Ugalde Zabala Alkate anderea ahalmentzea hitzarmena sinatzeko udalaren izenean eta berau ordezkatzuz

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

#### **BOSGARREN GAIA**

#### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, UDAL HONEN ZERBITZURA DAUDEN LANGILEEN ORDAINSARIEN IGOERA 2005 URTEKO EKITALDIRAKO.**

2005eko abenduaren 19an, instituzioen ordezkari den EUDELen eta ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuen artean hartutako erabakia kontuan izanik, Udalbatzak honakoa erabaki du aho batez:

2005 urteko ordainsariak %2 igotzea 2004ko ordainsari globalekiko, eta hori, bai oinarrizko ordainsarrietan zein osagarrietan. Gainera, 2005erako urteko ordainsariak %20ko hazkunde osoa izango dute, langile bakoitzaren lanpostu-mailaren osagarri gisa, aparteko bi pagarekin. Bestetik, modernizazioari, zerbitzu publikoen prestazioaren arrazionalizazioari eta Erakundearen administrazioaren produktibitatearen hobekuntzari dagokion fondoa ere modu gehigarrian handituko da. Kopuru hori eta aipatutako hiru kontzeptuengatik hazkundeen masa gehituta, 2004ko oinarrizko ordainsarien eta ordainsari osagarrien soldata-masaren %4,1aren kopuru baliokidea lortu behar da, 2005eko urtarrilaren 1etik atzeraeraginezko izaearekin eta, halakorik balitz, konturako hazkundeak kenduta.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

## **SEIGARREN GAIA**

### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEARI 2006 URTEKO EKITALDIAN EGIN BEHARREKO EKARPENAK.**

Udal hau parte den Tolosaldeko Mankomunitateak bidalitako 2006 ekitaldirako proposamena, 36.507,84 €-koa dena, ikusita, Udaltzarak aho batez erabaki du onartzea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

## **ZAZPIGARREN GAIA**

### **ZAHARREN BILTOKIAREN DIRULAGUNTZA-ESKAERA, 2005eko JARDUERETARAKO.**

Zaharren Biltokia jubilatuen elkarteak dirulaguntza-eskaera aurkeztu du 2005ean burututako jardueretarako. Hori dela eta, eta udal Gizarte Langilearen txostena ikusita, Udaltzarak honakoa erabaki du aho batez:

Lehena.- 1.200 €-ko diru-laguntza ematea eta ordainketa egitea.

Bigarrena.- Era guztietara, eskatzaileen ordezkariak honako agiriak aurkeztu beharko ditu:

-Aitorpen erantzulea, adieraziz, 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezartzen den egoeraren batean ez dagoela, ez bera, ezta sustatzailea ere.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

## **ZORTZIGARREN GAIA**

### **UDAL-AGINTARIEN ORDAINSARIAK EGUNERATZEKO PROPOSAMENA.**

Alkatearen ordainsariari eta zinegotzien asistentzia-ordainei dagokienean, esan behar da 2000ko otsailaren 1etik ez direla aldatu.

Beraz, Udaltzarak honakoa erabaki du aho batez:

Lehena.- Alkatearen ordainsariari dagokionez, eta kontuan izanda onartu zenetik ez dela aldatu, urteroko egokitze-sistema bat zehaztea, urtero erabakiko den udal-langileen ordainsarien igoeraren (EUFALEBA) arabera. Erabaki honek 2005eko urtarrilaren 1etik atzeraeraginezko izaera izango du.

Bigarrena.- Zinegotzien asistentzia-ordainei dagokienez, 1995eko urritik aldatu ez direnak, 60,10 €-ko kopurua ezartzea Osoko Bilkuretara bertaratzeagatik, zinegotzi bakoitzeko eta bilkura bakoitzeko. Dieta ordainsari hau urtero egokituko da, urtero erabakiko den udal-langileen ordainsarien igoeraren (EUFALEBA) arabera. Erabaki hau indarrean sartuko da 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

Aztertzeke beste gairik ez zegoenez, 21:15ean amaitu zen bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN du.